



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2020ko URTARRILA - 210 zenbakia

## Urtarrilaren 24an hasiko da Arabako Kuadrilla Artekoa

**Bertsogintza sartzeko eta indartzeko helburuarekin antolatu da Kuadrilla Artekoa; martxoaren 28an jokatu da finala Murgian.**

Urtarrilaren 18an aurkeztu zen Aramaion Arabako Kuadrilla Artekoa. Urtarrilaren 24an hasiko dira kanporaketak eta martxoaren 28an jokatu da finala. Aurtengoa txapelketa honen seigarren edizioa izango da eta 2018an hasitako eredu berari jarraituko dio.

Taldekako txapelketa da Kuadrilla Artekoa eta bi modalitatetan egiten da: bat-batekoan eta idatzizkoan.

Bat-batekoari dagokionez, 12 talde ariko dira. Gutxienez, hiruzpalau laguneko taldeak izango dira eta, talde bakoitzean, bertsolariek, gai-jartzaileek, epaileek, argazkilariek, kronikagileek, audio grabatzaileek, musikariek eta sukaldariek hartuko dute parte. Taldea bera antolatzailea ere izango da, bere herrian edo eskualdean saioak antolatzeaz arduratuko da eta. Aurten, guztira, 63 lagun ariko dira bertsotan, eta eginkizun guztiak kontuan izanda, denera 200 lagun inguruk parte hartuko du bat-bateko txapelketan. Lautada, Mendialdea, Gasteiz, Gorbeialdea eta Aiaraldea egongo dira ordezkaturak.

Hiru taldeko lau liga osatu dira, hau da, 12 saio jokatu dira. Talde bakoitzak bitan kantatuko du, behin etxean eta beste batean talde gonbidatu modura. Liga bakoitzeko talde irabazlea eta puntuazioaren hurrenkeran hurrengo biak finalurrekoetara pasako dira. Hiru finalurreko jokatu dira, bina talderekin. Finalurreko bakoitzeko irabazlea Murgiako finalera pasako da eta hirurik kantatuko dute finalean.

### Idatzizkoa ere, jendetsu

Idatzizko txapelketa ere egongo da eta 16 taldek parte hartuko dute; guztira, 80 lagun inguruk. Bertsoak prestatu, idatzi eta jendaurrean edo jendearekin batera kantatuko dituzte. Aurtengoan, idatzizko taldeak ere lehiatu egingo dira. Gainera, idatzizkoan eskualde guztiak egongo dira ordezkaturak.

Bat-batekoa eta idatzizkoa kontuan hartuta, guztira, 280 parte-hartzaile ariko dira, funtzio desberdinetan, aurtengo Kuadrilla Artekotan.

### Egutegia:

#### Kanporaketak (12 saio)

Urtarrilak 24: Laudio, Korres, Aramaio  
Otsailak 1: Gasteiz, Zalduondo  
Otsailak 7: Gasteiz  
Otsailak 8: Mendiola, Gasteiz (bi saio)  
Otsailak 14: Agurain  
Otsailak 15: Murgia, Aramaio

#### Finalurrekoak (hiru saio)

Otsailak 29: Agurain  
Martxoak 7: Aramaio  
Martxoak 14: Amurrio

#### Festa-finala

Martxoak 28: Murgia

**BEÑAT  
GAZTELUMENDI  
ARANDIA**  
Donostia 2019-XII-14



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txapelduna

#### Donua: Goizean altxatu eta

Bertso eskola bukatzean nor egoten zen gure zai?  
Gaixo geundenean nor zen min denak goxatzeko gai?  
Guk festa egin genezan nork ez zuen egiten jai?  
Ta nork eraman gintuen sabel barruan bi anai?  
Nahiz ta igual ez zenuen gaur protagonismorik nahi ama hau zuri eskeini gabe ez nengoke lasai (bis)  
Xabierren semea naiz ta Pilirena ere bai.



Martxoaren 28an jokatu da Kuadrilla Artekoren finala Murgian. / XDZ

# Partaidetza prozesua **abian**

**2018an zehaztu genituen datozen 12 urterako helburu eta egiteko estrategikoak. Eta, orain, 2020an gogoeta estrategikoan jasotako helburuei erantzungo dien egitura orekatu eta moldagarri, osasuntsu zein eraginkor bat diseinatzea dagokigu: elkartean egungo baliabideetara egokituko den funtzionamendua zein izango den zehaztea eta erabakitzea, hain zuzen ere.**

Asko gara eta askotarikoak, bertso jarduera bera bezala, bertsolaritzan ari garen eragileak, baina 1980. hamarkadan zirriborratu ziren egitura eta funtzionamendua darabilgu Bertsozale Elkartean. Eta urteen joanean aldatzen doaz jendartean eta komunitateetan parte hartzeko moduak, baita bertsolaritza ulertzeko moduak eta bertsoa hurbiltzeko erak ere.

Beraz, antolaketa, egitura, parte hartzeko moduak eta funtzionatzeko moduari erreparatzeko unea izango da 2020a eta horretarako urtean zehar, elkar topatu, eztabaidatu, hitz egin eta elkarrekin ekiten jarraitzeko unea batzuk marraztu ditugu.

Ezinbestekoa izango da borondatezko, soldatapeko, eragile, arduradun, bertsozale, bazkide eta Bertsozale Elkartea osatzen dugun ekosistemako partaideon parte hartzea. Izan ere, aniztasun horrek aberasten baitu gure mugimendua. Horregatik, parte hartzeko aukera eta momentu desberdinak egongo dira fase bakoitzean.

Zer egingo dugu urtean zehar? Hiru pauso nagusi izango ditu Farapi Kooperatiba Elkarteko kideekin batera diseinatu dugun partaidetza prozesuak.

## **1. Kokatu eta abiatu** Urtarrila- martxoa bitartean

Lehen pausoa izango da egungo egoera ezagutzea, zein gune dauden bakoitzak nola funtzionatzen duen jakitea.

## **2. Analizatu eta eraldatu** Otsaila-azaroa bitartean

Bigarren pausoa, berriz, egungo guneen egoera aztertu eta hobekuntzak proposatzea izango da. Horretarako, lansaiok parte hartzaileak egingo ditugu gune bakoitzaren analisia egiteko: bertso-eskolak, herrialdeetako batzordeak, gai-jartzai-leak, Ahalduntze Bertso Eskolako taldea, epaileak, bertsolariak, zuzendaritza batzordeak, sailak, irakasleak, bazkideak... Herrialde bakoitzean ere lansaiok bereziak egingo dira. Saiok horietatik ateratzen den informazio guztiarekin egituraren zirriborroa eta funtzionatzeko modu horretara iristeko ekintza plana zehaztuko dugu.

## **3. Adostu, erabaki eta ospatu** Azaroa-abendua bitartean

Gune guztietako eta mugimenduko partaide garen guztiok elkarrekin saio berezi bat egingo dugu gune bakoitzean landu diren plangintza guztiak bateratu eta plangintza osatua diseinatzeko.

Ondo egiten dakigun moduan, prozesuaren amaiera elkarrekin ospatzeko tartea ere hartuko dugu.

Aniztasuna praktikara eramateko unea da. Parte hartzeko unea desberdinak egongo dira urtean zehar, beraz, adi ibili eta ez galdu aukera.



Partaidetza prozesua abiatuko dugu 2020an./ XDZ

Partaidetza prozesua prestatzen buru belarri aritu dira Bertsozale Elkarteko kideak. Talde horretako hiru dira Beñat Gaztelumendi, Ione Narbaiza eta Ander Perez. Prozesuaren garrantziaz galdetu diegu hirurei:

1. Zergatik da garrantzitsua partaidetza prozesu hau egitea?
2. Zer ekarriko dio Elkarteari?

### Beñat Gaztelumendi Arandia, Zuzendaritzako kidea

1. Ez goaz ezer berririk egitera: elkarrekin aldiro erreparatu izan dio bere funtzionatzeko moduari eta uneoro aritu izan da parte hartzeko mekanismoak bertsolaritzaren beharretara egokitzen. Berritasuna da oraingoan Bertsozale Elkartearen osatzen dugun gune guztiok elkarrekin abiatuko dugula prozesua.

Bertsogintzaren bueltan antolatutako mugimendua ikaragarri dinamiko da. Bertsozale Elkartearen mugimendu hori elikatzen sortu zen eta, horretarako, behar-beharrezkoa da bertsolaritzaren bueltan lanean ari direnek elkarri entzuteko eta elkarrekin ekiteko lekuak sortzea. Elkartearen bueltan ekarpenak egiteko grina handia eta etorkizuna irudikatzen sekulako gaitasuna sumatzen ditugu. Horri denari lekua egin nahi diogu.

2. Profil ezberdinak elkartzen gara elkartean: bertsolari eta bertsozaleak, borondatezkoak eta profesionalak, herrialde ezberdinetako kideak... Denon ekarpena da ezinbestekoa. Eta denok eroso jarduteko elkarrekin bat nahi dugu: eragin nahi dugunon erritmoetara doitutako mugimendu bat, erabakiak hartzeko dinamikak zainduko dituen eta informazio-jario orekatu bat daukana.

Urteotan egindako bideak ekarri gaitu hona, eta prozesu hau egindako bidearen aitortza bat ere bada. Eta, aldi berean, aurrera begira jartzeko oinarri sendo bat ekarriko digu. 2018an adostu genituen datozen hamabi urteotarako helburuak eta orain gure egiturak eta funtzionatzeko moduak helburu horietara egokitzea dagokigu.

### Ione Narbaiza Gallastegi, Bizkaiko Bertsozale Elkarteko koordinatzailea

1. Erabaki dugu zeintzuk diren gure eragin eremuak, jardun esparruak eta zehar lerroak. Finkatu ditugu hurrengo 12 urteetarako helburuak. Orain, hori guztia zelan egin gura dugun erabaki behar dugu. Eta nori dagokio hori erabakitzea? Nork esan behar du zein izan behar den gure arteko harremana? Zelan saretu behar garen?

Bizkaian, gainontzeko herrialdeetan antzera, asko eta asko gara bertsolaritzaren inguruan batzen garenak; bertso-eskoletan, gai-jartzaile taldean, epaile taldean, komunikazio taldean, zuzendaritzan eta lantaldean, besteak beste. Denon artean osatzen dugu haziz eta haziz doan sarea. Sare anitza eta handia. Handia eta konplexua. Konplexua eta korapiloz betea.

Denoi dagokigu, beraz, zelan antolatu gura dugun erabakitzea. Zein korapilo indartu behar ditugun, eta zeintzuk askatzea komeni zaigun erabakitzea.

2. Prozesua parte hartzailea izateak, aniztasunak, osotasuna eta zilegitasuna emango dizkio prozesuari.

Ikuspegi ugari behar ditugu. Fokua non ipini erabakitzen lagunduko diguten ikuspuntuak behar ditugu. Lankideek, bertso eskolek edota gai-jartzaileek, egiturei, egoerei, egiteko moduei... buruz esateko dutena jaso gura dugu.

Zenbat eta begirada gehiago, zenbat eta leku gehiagotatik begiratu, argazki osatuagoa izango dugu denok, eta gehiago eta argiago ikusteko gai izango gara. Elkartearen anitza izatea gura badugu, aniztasunetik elikatu behar dugu.

Gure harreman sareak dituen hutsuneak identifikatu, askatu beharreko korapiloak askatu eta loturak indartzeko aukera dugu.

### Ander Perez Argote, Nafarroako Bertsozale Elkarteko koordinatzailea

1. Bada, urtean behin, Nafarroako bertso komunitatearen isla ematen duen une bat. Txapelketa bukatu berritan -berdin Bardotan-, elkarrekin afaltzera doa bertsolariak, gai-jartzaileak, epaileak, antolatzaileak eta zale hainbat. Mugimenduaren tamaina apala izango da agian arrazoi, baina bada sakonagoko zerbait, bertsolariak eta bertsozaleak, profesionalak eta borondatezkoak elkarrekin lotzen asmatu duen mugimendu batek baino azaldu ezin duena. Guretzako arrunta da elkar nahaste hori, baina ez da batere ohikoa. Eta, bere gazi-gozeekin, horrek azaltzen du gure izatea, gure pena zenbait, baina batez ere, gure arrakastak. Berdin eraman liteke afariko egoera eguneroko jardun eta egitasmoetara.

Kontua da denbora pasaz doala, eta denborarekin, aldatzen doazela jendartean eta komunitateetan parte hartzeko moduak. Eta aldatzen doa bertsolaritza, nola ez, eta bertsolaritza ulertzeko moduak, bertsora hurbiltzeko erak.

Unea da horiei denei tokia egin eta aniztasuna praktikara eramateko, elkar entzun eta elkar osatzeko, gure komunitatea izan dadin aurrerantzean ere jende talde bat, bertsoarekiko, euskararekiko eta kulturarekiko maitasunak elkar lotuta.

2. Elkartearen bere egitasmoa da, baina baita bere jendea ere, eta beraz, behintzat bere jarduna zaintzea bezainbeste dagokio elkarteari bere jendea zaintzea. Egitasmo eta erronka berriei erantzuteko, ezinbestekoa da ilusioa, motibazioa, gogoia, grina. Mugimendu baten parte izatearen harrotasuna. Horren bila goaz, eta, gauzak ongi, hori ekarriko dio prozesu honek elkarteari.



## Puntu jarrita

ESTITXU AROZENA ALBIZU

Mikelek bota didan galdera sentimentuei buruzkoa da. Zer sentitu nuen emakume bakar izanik 1992ko final haretan? Orduan sentitzen nuenaren oroimena izango da erantzunaren ardatz... 90. Hamarkadaren hasiera sentitzen (ge)nuena, gauzak egin beharra zen, gauzak aldatu beharra, bertso eskola sortu beharra, Nafarroako bertsolari gazteen gabeziarekin bukatu beharra, bertsolaritzaren estetika eta edukia aldatu beharra... Juxtuko bertso mailarekin, formazioz eskas baina ausardiaz aberats hantxe joan nintzen. Sentitu eta ekin (sobera pentsatu gabe agian...).

Nik uste emakume izatearena, inguruak nabarmendu zuen ezaugarri bat izan zela. Noski emakume nintzela, baina baita gazte, nafar, iraultzaile (ustez)... Bertso eskolan neska mutilak kopuruz berdintsu genbiltzan eta ni baino gazteagoa zen portugaldar baten semea ere nerekin batera sartu zen final haretan. Aldaketa garaia ziren.

Ez naiz inoiz gonazalea izan. Ez eta janzteko ere. Galtza bakeroak eta amak egindako jertse bat nituen soinean. Gure inguruan antzeko arrokekin genbiltzan neska eta mutiko gazteak. Oraindik ere mintzatu beharko dugu kristalezko sabaiez, neska nerabeen plazaratzeko zailtasunez (zenbaitetan mutilek baino maila altuagoa izanda ere), autoexijentziatz edo autoestimatz...

Baina 3 hamarkada beranduago gauzak aldatu direla erran genezake: Nafarroan ez baina... gainontzeko herrialdetan emakume bat baino gehiago sartu ohi dira finaletara, feminismoak formatu gaitu, gaien planteamentua zaintzen da... eta gona gehiago ikusten dira orohar. Atentzioa deitu zidan Nafarroako bertso munduko emakumeen lehen topaketan zenbat gonadun zuden.

Topaketa bikaina egin genuen gonadunek (eta nik). Gibelera begira baino gaur egunetik aintzinerara egin nahiko nuke nere galderarekin. Aipatu topaketarako buru belarri aritu ziren antolakuntza lanetan Irati Majuelo eta Joana Ziganda. Azken honi luzatzen dizkiot pare bat galdera: Joana, zerk motibatu zaitu hau antolatzerara? Ba al da zirrikiturik egoera aldatzeko?

## Bazkideen datuak eguneratzen

Zurekin dugun harremana ahalik eta biziena izan dadin, etengabe berrikusi eta eguneratzen ditugu bazkideen datuak. Honenbestez, eskertuko dugu [bertsozale@bertsozale.eus](mailto:bertsozale@bertsozale.eus) helbidera ondorengo datuak bidaltzea, eta, hala, gure datu basea egunean izango dugu: izen-abizenak, nortasun agiria, jaiotze data, helbidea, posta elektronikoa, telefono zenbakia eta IBAN kodea. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Datu Pertsonalak Babesteko legeadiak xedatzen duenari jarraituz jokatuko du, eta zainduko ditu datuok.

## Poto-Finixa



## Bosgarren aldiz, Ahots Baten

40 lagun pasatxo elkartu dira Gabon hauetan Ahots Baten sormen egonaldian, bosgarren urtez. Abenduaren 26tik 30era arte, antzerkia, bertsoa, kantua eta kontalaritza izan dituzte gozamenerako iturri, eta ohiko duten kultur diziplinatik harago, beste batzuk ere ezagutzeko abagune bikaina izan dute. Ainara Gurrutxaga aktorea, Iban Urizar "Amorante" abeslaria, Harkaitz Cano idazlea eta Amets Arzallus eta Onintza Enbeita bertsolariak ere izan dira tartean.



PUBLIZITATEA